

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Paroten eskubideen alde egin egin behar da

Euskal presoen eskubideen alde ekimenak, adierazpenak eta mobilizazioak egitea zilegi al da? Bai, eskubideak aldarrikatzea zilegi da. Euskal presoen eskubideen alde ekimenak, adierazpenak eta mobilizazioak egitea beharrezkoa al da? Bai, beharrezkoa da, eskubide horiek urratuak direlako. Euskal presoen eskubideen alde ekimenak, adierazpenak eta mobilizazioak egiteak lehentasuna al du? Bai, lehentasuna du, enfrentamendu gordinena ekarri zuen aurreko zikloa gainditzeko gai horri ere behin betiko aterabidea eman behar zaiolako. Sufrimendua une honetan hor dagoelako gehienbat, eta luzera ezingo delako benetako bakerik eraiki presoek kartzelan segitzen badute.

Paradoxikoa da ETA gogorki ari zenean ez zela halako polemikarik sortzen. Beste batzuk eta askoz ere handiagoak bai, baina halakorik, ez. Orduan Arrasaten Unai Paroten eskubideen alde mobilizazio bat egin izan balitz, ez zen izango hainbesteko zalapartarik. Esanguratsua da, beraz, sektore batek bakearen eta elkarbizitzaren alde (hamar urtez) urrats asko egin dituenen beste sektore batzuk gero eta gotorrago agertzea, presoen eskubideen aldeko mobilizazio batekin pipertzeraino. Esquin muturrari ez ezik, jeltzaleei ere halako ekimenak desitxuratzeko deigarria da. Aitor Estebanek «omenaldia» hitza erabili zuen zehazki.

Biktimen sentimenduak babestea baino askoz ere gehiago ezker abertzaleari erasotzea dute zio. Nonbait, ezker abertzalea borroka armatua goraipatzen ari dela irudikatu behar dute, oraindik iraganari iltzatua dagoela azpimarratzeko eta aurrera begira alternatiba gisa kamusteko. Estatuak hala behar du independentziaren aldeko prozesurik ez errotzeko, eta Urkulluk hala desira du bere hitzetan gero eta higuatua den autonomia kudeatzen segitzeko.

Ongietorrien harira aldiro sortu den polemikatik halakoetan tentuz eta sentsibilitatearekin jokatzeko kome-ni dela ondoriozta zitekeen, are gehiago ETaren amaie-ran nahikoa garbi geratu zenean ardatza ezin zitekeela izan borroka armatuaren aldarria egitea. 2018an hau-xe utzi zuen esanda ETak berak eskainitako azken el-karrizketa luzean: «Gure helburua une honetan ez da borroka armatuari gorazarre egitea. Badakigu horrek ez duela errazten datorren fase politikoak eta gatazka-ren konponbideak eskatzen duten prozesua. Eraginda-ko kaltea errespetuz aitortzeko ordua da, besteek jasan dutenaz zintzotasunez jabetzeko, eta berradiskidetze-ko ahalegina egiteko. Sendabidea bilatzeko ordua da, guztien eskubideak errespetatuz eta arazoei konponbi-de demokratikoak eskainiz».

Esanguratsua da sektore batek bakearen eta elkarbizitzaren alde urrats asko egin dituenen beste sektore batzuk gero eta gotorrago agertzea

Arrasateko ekitaldiarekin sortutako zalapartak erreali-tate bat erakutsi digu: hainbatentzat ongietorriena aitzakia hutsa zen betikoa birsortzeko. Azken hamar urteotan eskema bera erabili dute, aurre urrats bat egon den bakoitzean, bizikidetzarako onuragarri izan zitekeen ekimen bat egon denean, berandu baino le-hen, beste polemika bat bilatuz. Oraingoan giza esku-bideak aldarrikatzea ere estigmatizatzeraz ausartu dira. Eta hori onartezina da. Paroten eskubideen eta kalera-tzearen aldeko mobilizazioak egin beharrekoak dira.

Hain zuzen, hori da gakoa, egin beharrekoa egitea, duela hamar urte abiarazitako bidetik baztertu beha-rrekoa baztertuz, moldatu beharreko moldatuz eta be-rrehsi beharrekoa berretsiz. •